



BALDINTZA AGIRIA, IRUÑEKO COWORK GUNEAN (BARTOLOMÉ DE CARRANZA KALEA) LANEKO POSTUETARAKO LIZENTZIAK ESLEITZEKO.

1. Xedea.....	1
2. Onuradunak	1
3. Kudeaketa Unitatea	1
4. Erabilera araubidea.....	1
5. Prezioa.....	2
6. Esleipendun izateko betekizunak	3
7. Eskabide-inprimakia eta eskabideak aurkezteko tokia eta epea.....	3
8. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.....	4
9. Baremazio-irizpideen aplikazioa eskaerei, esleipena eta zerrendaren eraketa	4
10. Proiektuak ebaluatzeko irizpideak.....	5
11. Itxaron zerrendaren kudeaketa	7
12. Esleipenaren osteko betebeharrak	7
13. Izaera juridikoa, errekurtsoak eta jurisdikzioa	7
I. Eranskina: Eskabide-inprimakia	8
II. Eranskina: Proiektuaren fitxa	8

1. Xedea

Agiri honek xede dauka Cowork guneko sei laneko postu (mahaia, aulkia, objektu pertsonalak gordetzeko armairua, ordenagailua...) erabiltzeko lizentziak esleitzeko baldintzak ezartzea. Cowork San Bartolomé de Carranza kalean dago, 352 zk.ko etxadiaren 03-0960-01-004 katastro-erreferentzia duelarik.

2. Onuradunak

- Iruñean erroldatutako ekintzaileak.
- Iruñean egoitza soziala eta zerga-egoitza dituzten autonomoak, profesionalak eta mikroenpresak.
- Iruñetik kanpoko ekintzaileak, autonomoak, profesionalak eta mikroenpresak.

3. Kudeaketa Unitatea

Iruñeko Udaleko Tokiko Ekonomia Jasangarriko Alorraren (Ogasuna, Gizarte Ekonomia, Enplegua, Merkataritza eta Turismo) Merkataritza Zerbitzua da agiri hau arautzen duen prozeduraren Kudeaketa Unitatea.

4. Erabilera araubidea

CoWork guneko sei laneko postu (mahaia, aulkia, objektu pertsonalak gordetzeko armairua, ordenagailua...) erabiltzeko lizentziak prekarioan emanen dira, gehienez ere urtebeterako, erabilera-lizentzia onesten unetik, eta epe hori ezin izanen da luzatu.

Lizentziak bakarrik luzatzen ahalko dira baldin eta itxaron zerrendan eskaerarik ez badago eta behin postu hutsen deialdia publikoa eginda ez bada eskaerarik aurkeztu, eta, betiere, CEINek aurkeztutako balorazio-txostenaren puntuazio-ordenarekin bat.



Gunea lizentziaren indarraldia amaitu baino lehen erabiltzeari utzi nahi diotenek idatziz jakinarazi beharko diote Merkataritza Zerbitzuari, noiz utzi nahi duten eta gutxienez hilabete lehenago, bertan zehaztuta zein egunetan geratuko den lanpostua Udalaren eskura. CoWork gunea erabiltzeari behar baino lehenago uzteak ez du ekarriko ezin zehapenik.

CoWork gunearen erabiltzailea izateari utzi ondoren gutxienez 2 urte igaro beharko dira haren eskaera berri bat onartua izateko. Eskaera berriak lehen erabilera-lizentzia eragin zuenaz bestelako proiektua izan beharko du xede.

Lizentzia bakoitzak dauden 6 postuetako bat bakarrik erabiltzeko eskubidea emanen du, eta ez dago baimenduta erabilera lagatzea eta hirugarrenek postua erabiltzea. CoWork gunea erabiltzeko lizentzia besterenezina da; hartara, haren titularrek ezin izanen dute baimendutako erabilera ez lagatu ez elkartrukatu.

CoWork gunea erabiltzeko araubidea eta baldintzak honako agiri honetan dago jasota: “IRIZPIDEAK, IRUÑEKO COWORK GUNEAREN (BARTOLOMÉ DE CARRANZA KALEA) ERABILERA- ETA FUNTZIONAMENDU-LIZENTZIARAKO”.

Gunea erabiltzeko lizentziak berekin ekarriko du dagokion prezio publikoa ordaintzeko beharra, eta hori 1 zk.ko Arau Fiskalean jasoko da, non Udalaren lokalak eta guneak erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen baitira.

5. Prezioa

CoWork gunea erabiltzeko prezio publikoa hilabetez hilabete ordainduko da, betiere hilekoak osorik eta aurretiaz ordaindu behar direla.

Udalak dagokion ordainagiria igorriko du, eta hori gunea erabiltzeko baimena duen titularrak ordainduko du, banku-helbideratzearen bidez. Horretarako, esleipendunak banku-helbideratzea eskatzeko agiria aurkeztu beharko du; Udalak emanen dio agiri hori postuaren esleipenaren jakinarazpenarekin batera.

Ordainagiria hilabete bakoitzeko lehen hamar egunen barruan igorriko zaio dagokion ebazpenean postu bat erabiltzeko baimena ematen zaion pertsona fisikoari edo juridikoari. Postu bat erabiltzeko eskaera bi pertsona fisikok edo gehiagok egiten duten kasuan, ebazpenean eta helbideratze-eskaeran jasota dagoenaren izenean igorriko da ordainagiria, ezertan eragotzi gabe horrek gainerakoei jasanaraztea dagokien parte.

Emandako datuetan aldaketarik izanez gero, esleipendunek lehenbailehen eman beharko diote horren berri Merkataritza Zerbitzuari, behar bezala gaurkotu ditzan.

Hasierako edo amaierako ordainketa ez badator bat hilabete naturalarekin, egun naturalak hainbanatuz kalkulatu da.

Postua erabiltzeari epea amaitu baino lehenago utziz gero, esleipendunak dagokion ordainagiriaren parte proportzionala itzultzeko eskatzen ahalko du. Horretarako, esleipendunak agindua emanen dio bere bankuari baja zein hilabetetan hartu eta horri dagokion ordainagiria itzul dezan, eta Udalarari eskatu beharko dio alta-aldiko egun naturalei dagokien prezioaren gaineko ordainagiria igortzeko.

Esleipendunaren egoera ekonomikoak bidea ematen badu Tarifa Eranskinaren V. Epigrafean aurreikusita dauden murriztapenen bati heltzeko, prezio publikoa berraztertzeko eskatzen ahalko zaio Merkataritza



Zerbitzuari. Aplikagarri den prezio berria murriztapena zein hilabetetan aitortu eta horren hurrengo ordainagirian aplikatuko da.

Bi ordainagiri elkarren segidan ordaintzeari utziz gero, esleipendunak esleipendun izateari utziko dio, eta CoWork gunearen instalazioak utzi beharko ditu 5 egun naturaleko epean.

6. Esleipendun izateko betekizunak

Honako betekizun hauek betetzen dituztenak izan daitezke CoWork guneko sei laneko postu (mahaia, aulkia, objektu pertsonalak gordetzeko armairua, ordenagailua...) erabiltzeko lizentziaren esleipendun:

- Ekintzaileak, autonomoak, profesionalak edo mikroenpresak izatea, eta 16 urteak beteta edukitzea pertsona fisikoen kasuan. Ekintzaileen kasuan, enpresa hiru hilabeteren epearen barruan sortu beharko da, erabilera-lizentzia onetsi eta hortik aitzina kontatuta. Bestela, esleipendunak utzi beharko du CoWork gunea.
- Europar Batasunetik kanpoko herritarren kasuan, atzerritartasun arloan indarrean den legediak eskatutako egoitza- eta lan-baimena eduki beharko dute.
- Eskatzaileek egunean eduki beharko dituzte Udaleko Ogasunarekiko ordaintzeko betebeharrak.

7. Eskabide-inprimakia eta eskabideak aurkezteko tokia eta epea

Idatziz egingen dira CoWork gunea erabiltzeko eskaerak, baldintza-agiri honen I. eranskinean jasota dagoen arauzko ereduarekin bat.

Eskabideak, behin beteak eta sinatuak, honako toki hauetan aurkeztu behar dira: Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean (Kondestablearen jauregia - Kale Nagusia 2, behea), erregistro osagarrietan (Descalzos k. 72, 2. solairua; Iratxeko monasterioaren k. 2, behea; Armada etorbidea 2, 5. solairua; Zapatería k. 40, behea; Eslava k. 1, behea) edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozeinetan. Eskabideak Iruñeko Udaleko Merkataritza Zerbitzura zuzenduta aurkeztuko dira.

Eskabidearekin batera “Aurkeztu beharreko agiriak” izeneko puntuan zerrendatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Proposamenak posta bidez bidaliz gero, eskatzaileak egiaztatu beharko du, dagokion ordezkagiriak, Posta Bulegotik egindako bidalketaren data, eta eskaera igorri izana iragarri beharko du posta elektronikoko bidez, helbide honetan: comercioyturismo@pamplona.es.

Eskabideak aurkezteko epea 15 EGUN NATURALEKOA izanen da, iragarkia Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratu eta hortik aitzina. Epearen azken eguna Iruñean baliogabea bada hurrengo egun baliodunera luzatutzat joko da epea.

Interesdunek idatziz eskatzen ahalko dute behar adina zalantza argitzeko baldintza-agiriaren edukiaz bezainbatean comercioyturismo@pamplona.es posta-helbidean, eta horiei erantzuna emanen zaie eskabideak aurkezteko mugaeguna baino hiru egun natural lehenago bitarte, betiere argibideen eskaerak aurkeztu badira eskabideak aurkezteko mugaeguna baino sei egun natural lehenago gutxienez. Galderak eta erantzunak Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratuko dira.



8. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak

Onartua izateko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eta eskaera bakoitzaren gaineko balorazioa egiteko, eskabidearekin batera (I. eranskina) honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Kasu guztietan:
 - Proiektuaren gaineko fitxa beterik (II. eranskina).
 - Egoitza- eta lan-baimena, Europar Batasunetik kanpoko herritarren kasuan.
- Ekintzaileen kasuan:
 - Eskatzailearen eta talde ekintzaileko gainerako kideen NANen kopiak.
 - Eskatzailearen Errolda-egiaztagiria. Erroldatze-helbidea Iruñeko udal-mugaratean bada, hori adierazi beharko da, Udalak ofizioz egiaztatu dezan hala dela.
 - PFEZren gaineko aitorpena edo likidazioa, hura egiteko betebeharra dutenen kasuan, eskaera noiz egin eta jada data horretan aurkezteko epea amaiturik duen azken ekitaldiari dagokiona. Dokumentazio hori talde ekintzaile osatzen duten pertsona guztiek aurkeztu beharko dute. PFEZren gaineko aitorpena egitera beharturik ez daudenen kasuan, Ogasunak emandako ziurtagiria aurkeztuko dute betebeharraren ezaren gainean, eta datu fiskalak ere aurkeztu beharko dituzte.
- Autonomo, profesional eta mikroenpresen kasuan:
 - Enpresako kideen edo titularren IFZren kopia, eta enpresa berarena ere, halakorik bada.
 - Alta-ziurtagiria Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ), alta-data adierazita. JEZeko alta Iruñeko Udalean bada, Udalak ofizioz egiaztatuko du hala dela. JEZeko alta Iruña ez den Nafarroako beste Udal bateko autonomo edo profesional bati badagokio, ez da beharrezkoa izanen JEZ-ziurtagirian zerga-egoitza agertzea. Izan ere, ofizioz egiaztatuko da datu hori. JEZeko alta Nafarroatik kanpoko Udal bateko autonomo edo profesional bati badagokio, alta-datatz gain Zerga-egoitzaren datuak ere jasota agertu beharko du.
 - Enpresako kideek edo titularrek, enpresak berak eta enpresako langileek Gizarte Segurantzaren hartutako altaren kopia.
 - Proiektuaren gaineko zergak ordaintzeko moduaren arabera, honako hauek: Sozietate Zerga, PFEZren gaineko aitorpena edo likidazioa –hura egiteko betebeharra duten kideen kasuan, eskaera noiz egin eta jada data horretan aurkezteko epea amaiturik duen azken ekitaldiari dagokiona–, edo, PFEZren gaineko aitorpena egitera beharturik ez daudenen kasuan, Ogasunak emandako ziurtagiria betebeharraren ezaren gainean, eta datu fiskalak. Azken agiri horiek –PFEZren gaineko aitorpena edo likidazioa / Ogasunaren ziurtagiria eta Datu Fiskalak– enpresako kideek edo titularrek aurkeztu beharko dituzte baldin eta zergak errenta bidez ordaintzen badituzte, eta ez Sozietate Zergaren bidez.

Baldin eta eskatzaileak ez badu baimenik ematen datuak ofizioz egiaztatzeko, agiriok aurkeztu beharko ditu.

9. Baremazio-irizpideen aplikazioa eskaerei, esleipena eta zerrendaren eraketa

Merkataritza Zerbitzuak Nafarroako Enpresen eta Berrikuntzaren Europako Zentroa SLri (CEIN) helaraziko dizkio jasotako eskaera guztiak. CEINek aztertu eta ebaluatuko ditu lokalak erabiltzeko eskaera-lizentziak.



Eskaerak ez baditu betetzen aipatu baldintzak edo osatugabea bada, Kudeaketa Unitateak entitate interesdunari eskatuko dio hura zuzentzeko hamar egun naturaleko gehienezko epean, errekerimenduaren jakinarazpena noiz egin eta hortik aitzina kontatuta, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela eta espedientearen artxibatzearen ebazpena emanen da.

Akatsak zuzentzeko epea amaituta, CEINek aztertuko ditu eskaerak eta txosten bat emanen du egindako balorazioaren gainean eskaera bakoitzak lortu duen puntuazioa ordenan adierazita. Txosten hori Merkataritza Zerbitzura igorriko da, eta horrek beste txosten bat emanen du onartutako eskaeren gainean, eta horretan oinarriturik erabilera-lizentziarako proposamena igorriko zaio Iruñeko Udaleko Tokiko Ekonomia Jasangarriko Alorraren Zinegotziari, hark ebazpena eman dezan. Ebazpen berean, postua lortu ez duten proiektuen itxaron-zerrenda ere onetsiko da, sor daitezkeen hutsuneak betetzeari begira.

Behin Iruñeko Udaleko Tokiko Ekonomia Jasangarriko zinegotzi ordezkariak CoWork gunea erabiltzeko lizentzia onetsita, onuradunei eta gainerako pertsoneri jakinaraziko zaie, itxaron-zerrendarekin batera.

10. Proiektuak ebaluatzeko irizpideak

Proiektuak 100 punturen gainean gehienez baloratuko ditu CEINek, eta irizpena ere emanen du, betiere jarraian zehazten diren irizpideekin bat:

1. Aurkeztutako enpresa-ekimenaren bideragarritasuna:

0 eta 20 punturen artean baloratuko da, aurkeztutako enpresa-ekimenaren bideragarritasunaren arabera. Xede horretarako, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan: hasierako inbertsio-beharrak, enpresa abiatzeko gastuak, talde sustatzaileak egindako diru-ekarpina, jarduketa-esparrua eta aritu behar duen merkatuan edukiko duen lehia-maila.

Proiektua baloratzen segitu ahal izateko, atal honetan gutxienez 15 puntu lortu behar dira.

2. Proiektuaren izaera berritzailea eta garapen-maila:

a) 0 eta 5 punturen artean baloratuko da, proiektuaren izaera berritzailearen arabera.

Hartara, 5 puntu emanen zaizkie proiektu berritzaileei eta 0 puntu berritzaileak ez direnei.

b) 0 eta 5 punturen artean baloratuko da, proiektuaren garapen- edo ontze-mailaren arabera.

Hartara, 5 puntu emanen zaizkie sortzeko prozesuan dauden enpresei; 2,5 puntu, duela bi urte edo duela bi urte baino gutxiago sortutako enpresei, eta 0 puntu, duela bi urte baino gehiago sortutako enpresei.

Atal hau baloratzeari begira, enpresaren antzintasuna kalkulatu da eskaerak aurkezteko mugaegunaren arabera, eta enpresaren sorrera-datatzat JEZen alta emandako eguna hartuko da.

3. Lanpostuak sortzea:

a) 0 eta 5 punturen artean baloratuko da, besteren kontura sortutako lanpostuen kopuruaren arabera, talde sustatzaileko kideak kontuan hartu gabe.

Hartara, 5 puntu emanen zaizkie hiru lanpostu edo gehiago sortuko dituzten enpresei; 2,5 puntu, lanpostu bat edo bi sortu dituztenei, eta 0 puntu, lanposturik sortu behar ez dutenei.

b) 0 eta 5 punturen artean baloratuko da, besteren kontura sortuko diren lanpostuetan Iruñekoak kontratatutako direnen portzentajearen arabera, talde sustatzaileko kideak kontuan hartu gabe.



Hartara, 5 puntu emanen zaizkie kontratatutakoen % 100 iruindarrak dituzten enpresei, eta 0 puntu portzentaje hori 100ekoa ez bada.

3.a) eta 3.b) ataletan balorazioak egiterakoan, lanaldi osoko kontratuak lanpostu oso gisara kontatuko dira, eta lanaldi partzialekoak dagokien partearen arabera kontatuko dira, aplikagarri duten hitzarmenean oinarriturik egiten den lanaldiaren portzentajearekin bat.

4. Sektoreak:

0 eta 10 punturen artean baloratuko da, aurkeztutako enpresa-ekimena zein sektoretakoa izan eta horren arabera. Hartara, 10 puntu emanen zaizkie kooperatiba diren edo izan nahi duten proiektuei, tokiko ekonomia jasangarria oinarri dutenei eta proiektu sozialei edo kulturei edo halakoak izan nahi dutenei, eta 0 puntu beste sektoretako proiektuei.

5. Zerga-egoitza:

0 eta 10 punturen artean baloratuko da, aurkeztutako enpresa-ekimenaren zerga-egoitzaren arabera. Hartara, 10 puntu emanen zaizkie zerga-egoitza Iruñean duten proiektuei, eta 0 puntu zerga-egoitza Iruñetik kanpo duten proiektuei.

Ekintzaileen kasuan, eskatzailearen erroldatze-helbidea hartuko da zerga-egoitza.

Autonomo eta profesionalen kasuan, JEZeko altan agertzen dena hartuko da zerga-egoitza.

6. Emakumeen presentzia, talde sustatzailean:

0 eta 15 punturen artean baloratuko da, talde sustatzailean dagoen emakumeen portzentajearen arabera. Hartara, 15 puntu emanen zaizkie talde sustatzaileko kideen % 100 emakume dituen taldeari; 7,5 puntu, portzentaje hori %50 eta 99,99ren artean dutenei, eta 0 puntu, portzentajea % 50etik beherakoa dutenei.

7. Gazteen presentzia, talde sustatzailean:

0 eta 15 punturen artean baloratuko da, talde sustatzailean dagoen gazteen portzentajearen arabera. Hartara, 15 puntu emanen zaizkie talde sustatzaileko kideen % 100 gazte dituen taldeari; 7,5 puntu, portzentaje hori %50 eta 99,99ren artean dutenei, eta 0 puntu, portzentajea % 50etik beherakoa dutenei.

Atal honetako balorazioaren ondorioetara, eskaerak aurkezteko mugaegunean 16 eta 35 urte bitarte dituztenak, biak barne, joko dira gaztetzat.

8. Errendimendu maila:

0 eta 10 punturen artean baloratuko da, errendimendu-mailaren arabera:

- Proiektuak errentaren arabera ordaintzen baditu zergak, 10 puntu emanen dira, baldin eta bazkideen hilabeteko batez besteko errenta bada pertsona horientzat kalkulaturako batez besteko Gizarteratze Errentaren (GE) % 100aren adinakoa edo gutxiago; 5 puntu, bazkideen hilabeteko batez besteko errentak GEren % 100 baino gehiago eta GEren % 200en adina edo gutxiago jotzen badu; eta 0 puntu, bazkideen hilabeteko batez besteko errentak pertsona horien batez besteko GEren % 200 baino gehiago jotzen badu.

Bazkideen batez besteko GE kalkulatzeko, PFEZren gainean indarra duten arauetan xedatutako familia-unitatea hartuko da aintzat, eta bazkide bakoitzari dagokion GE erabiliko da (1. bazkideGE, 2. bazkideGE...). Bazkide bakoitzaren GEak batu eta ateratzen den zenbatekoa bazkide-kopuruaz zatituko da, aipatu babez testeko GE lortzeko (1. bazkideGE, 2. bazkideGE+... / bazkide kopurua).



Bazkideen hilabeteko batez besteko errenta-maila kalkulatzeko, bazkide bakoitzaren hilabeteko errenta maila zehaztuko da; eta horretarako eskaera noiz egin eta jada data horretan aurkezteko epea amaiturik duen ekitaldiari dagokion PFEZren gaineko azken aitortpen edo likidazioaren zerga-oinarriaren zati orokorra eta aurrezkiaren likidazio-oinarri berezia batuko dira, eta emaitza 12 hilabetez zatituko da bazkideak PFEZren aitortpena egitera beharturik dauden bazkideen kasuan. Aitortpena egin behar ez dutenen kasuan, 12 hilabetez zatituko da datu fiskaletan jasota dagoen errendimendu-datua. Behin bazkide bakoitzaren hilabeteko errentaren maila kalkulata, bazkide guztien hilabeteko errentaren maila lortuko dugu, bazkideen hilabeteko errentaren maila guztiak batu eta emaitza bazkide-kopuruaz zatituta (Hilabeteko errenta 1 + Hilabeteko errenta 2... / bazkide kopurua).

Bazkide batek ez badu PFEZren aitortpena egin beharrik, datu fiskalak erabiliko dira baliokidetasuna zehazteko PFEZren zerga-oinarriaren alde orokorraren datuekin eta aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziaren datuekin.

- Proiektuak Sozietate Zergan ordaintzen baditu zergak, 10 puntu emanen dira zerga-oinarria 0 euro edo gutxiago bada, eta 0 puntu, zerga-oinarria 0 euro baino gehiago bada.

11. Itxaron zerrendaren kudeaketa

CoWork gunean postua lortu ez duten proiektuak itxaron-zerrendan sartuko dira lortutako puntuazio-ordenarekin bat, eta itxaron-zerrendaren indarraldia amaituko da hurrengo deialdiaren lizentzia berriak esleitzearekin batera.

Postu bat hutsik geratzen bada erabiltzeko gehienezko lizentzia-epea guztiz agortu gabe, indarreko itxaron-zerrendan hurrengo tokian den proiektuak beteko du, hasierako lizentziaren indarraldia (urte 1) noiz amaitu eta ordura arte.

Baimen-ebazpen berriak eginen dira dela postu bat hutsik geratzen denean, dela “IRIZPIDEAK, IRUÑEKO COWORK GUNEAREN (BARTOLOMÉ DE CARRANZA KALEA) ERABILERA- ETA FUNTZIONAMENDU-LIZENTZIARAKO” agiriaren 10. artikuluan ezarritako gehienezko erabilera-aldia amaitu eta deialdi berri bat argitaratu eta ebazten denean. Irizpideok Nafarroako Kontratazio Atarian daude argitaraturik.

12. Esleipenaren osteko betebeharrak

CoWork gunea erabiltzeko lizentzia eman eta gero, esleipendunak agiri bat sinatuko du “IRIZPIDEAK, IRUÑEKO COWORK GUNEAREN (BARTOLOMÉ DE CARRANZA KALEA) ERABILERA- ETA FUNTZIONAMENDU-LIZENTZIARAKO” agirian jasotako arauak betetzeko konpromisoa hartzeko.

Halaber, banku-helbideratzea eskatzeko agiria aurkeztu beharko du, bertan prezio publikoari dagozkion hilabeteko-karguak egin ahal izateko.

Iruñeko Udalak une orotan beharrezko agiriak eskatzen ahalko dizkie esleipendunei legezko betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko.

13. Izaera juridikoa, errekurtsioak eta jurisdikzioa

Baldintza-agiri honek administrazio-izaera dauka, eta prozesu hau arautuko du. Agiri honetan aurreikusita ez dauden kasuetarako, honako hauek izanen dira aplikagarri: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen IV. Titulua, 280/1990 Foru Dekretua, Nafarroako Toki Entitateen



Ondasunen Erregelamendua onesten duena, 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoetarako buruzkoa, eta aplikagarri diren gainerako arauak.

Baldintza-agiri honen kontra eta hura betetzeko eman daitezkeen ebazpenen kontra, honako errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den Iruñeko Udaleko organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.

Baldintza hauen interpretazio, aldaketa, ebazpen eta ondorioak direla eta geroko esleipena dela eta sor daitezkeen auziak Iruñeko Udalak ebatziko ditu, eta haren erabakien aurka errekurtsioak paratu daitezke Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 332. artikuluekin eta hurrengoekin bat eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 112. artikuluekin bat. Nolanahi ere, parteek men eginen diete Nafarroako Administrazio Auzitegien eskumenari eta erabakiei, eta uko eginen diote foru propioa edo egokitzen ahal zaien beste edozein erabiltzeari.

I. Eranskina: Eskabide-inprimakia

II. Eranskina: Proiektuaren fitxa